

IRAKASKUNTZA-GIDA 2020/21

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa 1. maila

IRAKASGAIA

25062 - Psikologia Dinamiko

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Psikologia Dinamiko Psikologiako Graduan lehenengo kurtsoan ematen den derrigorrezko irakasgaia dugu. Ikasleari Psikoanaliaren teoria eta praktikaren ezagutza hurbilduko zaie.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

- 1-Teoria psikoanalitiko eta bere oinarriko kontzeptuak eta ekarpenak ezagutzea.
- 2-Kontzeptu psikoanalitikoek hainbat diziplinetan duten gaurkotasuna ezagutzea, testuen analisi kritikoaren bitartez.
- 3-Teoria psikoanalitikoaren inplikazio aplikatuak ezagutzea.
- 4-Teoria psikoanalitikoaren ezagutzak ahoz eta idatziz komunikatzeko gai izatea, baliabide teknologiko egokiak erabiliz.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

- 1.Gaia. Psikoanaliaren jatorria eta eboluzioa: S. Freudren bizitza eta lana.
- 2.Gaia. Metodo psikoanalitiko
- 3.Gaia. Freud-en metapsikologia
- 4.Gaia. Psikoanaliaren oinarri praktikoak
- 5.Gaia. Psikoanaliaren garapen berriak
- 6.Gaia. Psikoanalisia, kultura eta gizartea

METODOLOGIA

Eskola Magistralak

- Gaitegiarekin loturiko edukien irakurketa eta zalantzak argitu.
- Eredu ezberdinen artean antzekotasunak eta ezberdintasunekin loturiko galderak eta erantzunak.
- Taldea hautazko ariketak eta errepassoa.

Gelako praktikak

- Kasuen analisia (bideoak ikuskatu eta sintesi lana).
- Bideo saioetan: eztabaida suspertu eta zalantzak argitu.
- Hautazkoa (ikasgelan ikusitako bideoak ikuskatu.)

Tailerrak

- Tailerretara joan aurretik bibliografia bilaketak.
- Irakurketen laburpenak edota eskemak.
- Irakasleak prestatutako galderak taldea erantzunak adostu.
- Ikasgelan eztabaida eta aurkezpenak suspertu.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	32	4	12				12		
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	48	6	18				18		

Legenda: M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 60
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 30

- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azterketa idatzia garatu, test motako azterketa edota ahozko azterketa.

Praktiketan: banakako lanak. Talde lanak. Aurkezpenak.

Ikasturte hasieran irakasleak ikasleei, Ikasleen Arautegian jasota dauden ebaluazio sistema ezberdinak planteatuko dizkie, eta praktiken, lanen eta aurkezpenen balioa eta azken notan izango duten haztapena jakinaraziko die.

Nota finalean praktiken pisua ezagutzera emango du. Atal teorikoak nota finalaren %60 balioko du eta atal praktikoak % 40.

Deialdiari uko egiteko ez aurkeztearekin nahikoa izango da. 1 - Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute. 2 - Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari. 3 - Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea. Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

1.– Irakasgaia ohiko deialdian gainditzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta jardueretara aurkezteko. 2.– Ezohiko deialdietan irakasgaiak ebaluatzeko sistema bakarra azken ebaluazioa izango da. 3.– Ezohiko deialdiko azken ebaluazioko probak definituta dauden ikaskuntzaren emaitzak ebaluatzeko eta neurtzeko behar beste azterketa eta ebaluazio jarduera izango ditu, emaitzak ohiko deialdiaren pareko baldintzetan ebaluatu ahal izateko. Ikasleek ikasturtean zehar eskuratutako emaitza positiboak gorde ahal izango dira. Aldiz, ikasturtean zehar egindako etengabeko ebaluazioaren emaitzak negatiboak badira, emaitzak ezin izango dira ezohiko deialdirako mantendu eta deialdi horretan ikasleek kalifikazioaren % 100 eskuratu ahal izango dute.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Testu psikoanalitiko adierazgarrietatik hautatutako irakurgaiak.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

Laplanche,J. y Pontalis,JB. (1983). Diccionario de Psicoanálisis. Labor.Barcelona.

Bofill, P.y Tizón, J.(1994). Qué es el Psicoanálisis. Herder. Barcelona.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Etchegoyen, R.H. (1988). Los fundamentos de la técnica psicoanalítica. Amorrortu. Buenos Aires.

Fenichel, O. (1966). Teoría Psicoanalítica de las neurosis. Paidós. Buenos Aires.

Foulkes, D. (1978). La gramática de los sueños. Paidós. Buenos Aires.

Garma, A. (1978). El Psicoanálisis.Teoría, clínica y técnica. Paidós. Buenos Aires.

Rof Carballo, J. (1972). Biología y psicoanálisis. Desclée de Brouwer. Bilbao.

Roheim, G. (1973). Psicoanálisis y antropología. Sudamericana. Bs. As.

Aldizkariak

Psicoanálisis. Buenos Aires. Asociación Psicoanalítica de Bs. As.

Revista de Psicoanálisis de Madrid.
Madrid. Asociación Psicoanalítica de Madrid.

Nouvelle Revue de Psychanalyse.
París. Gallimard.

Internacional Journal of Psycho-Analysis. Londres. Institute of Psychoanalysis.

Interneteko helbide interesgarriak

[http// www. psiconet.org](http://www.psiconet.org)

A través de esta página se obtienen enlaces con páginas de psicoanalistas, con Seminarios, Revistas, libros, Congresos, ¿ todo relacionado con el Psicoanálisis.

OHARRAK

Psikologia Dinamikoa irakasgaiak, prestakuntza akademikoa era guztiz presentzian garatu ezin diren salbuespenezko kasu haietarako egokitutako prestakuntza presentzial plan bat begiesten du. Gizarte urruntzea, mugatutako edukiera eta, higiene eta osasun neurriak kontuan hartuz sortzen den agertokian, prestakuntza presentziala klase telematikoein eta saio asinkronikoein osatzen duen prestakuntza plana da.

1.- Eskola magistralak: irakasgaiko eskola teorikoak, ahal den heinean, modu presentzian emango dira. Mugatutako edukierak, ikasgelen erabilgarritasunak, ordutegi akademikoak edota higiene eta osasun neurriak irakaskuntza presentziala oztopatzen dutenean, klaseak eGela, BBC edota antzeko plataformen bidez emango dira, beti ere talde bakoitzaren ordutegian (webuntis).

2.- Eskola praktikoak: irakasgaiko eskola praktikoak, ahal den heinean, modu presentzian emango dira eta lehenetsia izango dute, klase teorikoein alderatuz, aurrez aurrekoak izateko. "Egokitutako presentzialtasuna" agertokia diseinatu behar izanez gero, praktikak modu telematikoein jarraitu behar dituen ikasleria, eGela, BBC edota antzeko plataformen bidez konektatuko da. Bertan, praktiken garapena jarraitu, eztabaidatu, egindako zereginak amankomunean jarri eta sortu daitezken zalantzak modu zuzenean planteatu ahalko dira.

3.- Tutoretzak: irizpide orokor bezala, tutoretzak, modu presentzian (aurretiko hitzorduarekin), email, edota BBC bitartez egingo dira, GAUR plataforman ezarrita dauden ordutegietan. Ikasleriarekin aurretiaz ezarritako ordutegi alternatiboetan egiteko aukera ere egongo da.

4.- Ekintzen kronograma: irakasgaiko asteko jarduerak eGela, webuntis edota antzeko tresna birtualen bidez jakinaraziko dira, eguna, ordua eta jardueren deskribapen laburra jarriko direlarik.

5.- Aukera jarraitua eta mistoaren ebaluapena:

a) Irakasgaiaren atal teorikoaren ebaluapena test formako frogaren bidez egingo da, 50 galdera 4 erantzun aukerekin non 25 erantzun zuzen izango dira ebaketa-puntua (erantzun okerrak -%25 penalizatzen dute). Froga, Fakultateak egutegi akademikoan ezarritako datan egingo da, galdetegi moduan eta modu presentzian edota e-Gela plataformaren bidez (ebaluapen presentziala ezinezkoa baldin bada). Ordu bete inguruko iraupena izango duen frogaren balioa, azken notaren %60koa izango da.

b) Atal praktikoen ebaluazioa, gida honetan ezarrita dauden jarraibideetan oinarrituz, modu jarraituan egingo da (azken notaren %40).

- Hausnarketa egunerokoa edo Sandplay Teknika proiektiboa: bi jardueraren hauek baten txostena modu presentzian (aukera baldin bada), email edo eGelaren bitartez entregatuko da irakasgaiaren ekintzen kronograman ezarritako datan. Txosten honek azken notaren %10eko balioa izango du.

- Portafolio hezitzailea: txostenak modu presentzian (baldin eta, ekainaren 9ko, 21/2020 Errege Lege Dekretuan ezarritako neurriak betetzeak usten badu), email edo eGelaren bitartez entregatuko dira, irakasgaiaren zereginen kronograman ezarritako datan. Txosten honek azken notaren %30eko balioa izango du. Portafolio honek hurrengo atalak izango ditu:

1.- Psikologia Elkargo Ofizialeko kode deontologikoaren analisi kritikoa (%5).

2.- Gaixotasun mentalei buruz sortutako gida psikopatologikoa (%10).

3.- Literatur psikoanalitikoetik aukeratutako kasu kliniko baten txostena (%10).

4.- Taldeen barne arautegia eta egin dituzten bileren aktak (%5).

6.- Azken frogaren aukeraren ebaluazioa:

- Irakasgaiaren atal teorikoaren ebaluapena test formako frogaren bidez egingo da, 50 galdera 4 erantzun aukerekin non 25 erantzun zuzen izango dira ebaketa-puntua (erantzun okerrak -%25 penalizatzen dute). Froga, Fakultateak egutegi akademikoan ezarritako datan egingo da, galdetegi moduan eta modu presentzian baldin eta egoerak usten badu. Ebaluapen presentziala ezinezkoa balitzateke, frogaren e-Gela plataformaren bidez egingo da. Ordu bete inguruko iraupena izango duen frogaren balioa, azken notaren %70koa izango da.

- Irakasgaiko gelako praktiken eta tailerren gaitasunen ebaluazioa egiteko, erreferentzia-elementu gisa hartuko da ikasleek, aurretiaz ezarritako protokolo baten arabera egin behar duten literatura psikoanalitikoaren kasu baten inguruko txosten klinikoak (kasu frogaren egunean emango da). Txostena, Fakultateak egutegi akademikoan ezarritako datan eta dagokion irakasleari entregatuko zaio modu presentzian. Ebaluapen presentziala ezinezkoa balitzateke, txostena emailez bidaliko da e-Gela plataformaren bidez. Txosten honen balioa, azken notaren %30ekoa izango da.